



BIDAIKO LAGUNTZA-ASEGURUEN KANPAINAREN OINARRIAK

Agiri honek **"Bidaiako Laguntza" ASEGURUEN** kanpainaren baldintzak jaso eta zehazten ditu. **Txartelez ordaindutako poliza berrietarako balio du kanpainak.**

1. Kanpainaren datak:

Sustapena 2018ko ekainaren 19an hasi eta 2018ko uztailaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko zergatirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2018ko ekainaren 19tik uztailaren 31ra bitartean kontratatu behar da poliza (hasiera-datak, berriz, 2018ko urriaren 15era arteko muga izango du).

2. Eskaintza:

Bezeroak Huawei P10 Lite J smartphone baten zozketan hartuko du parte, baldin eta Europ Assistanceren Bidaiako Laguntza Asegurua —FUN, TOTAL FUN, ESENCIAL, SCHENGEN, ENJOY, SEAYOU, LUGAGE, STOP, BYEBYE eta MISSYOU modalitateak— kontratatzen badu LABORAL Kutxaren bidez kanpainak irauten duen bitartean, txartelez ordaintzen badu eta bidaiaren data 2018-10-15a baino lehenagokoa bada.

3. Baldintza orokorrak:

- Eskaintzak aseguru-poliza berrietarako soilik balio du, betiere 2018ko ekainaren 19tik uztailaren 31ra bitartean kontratatzen badira (bidaiaren hasiera-datak, berriz, 2018-10-15era arteko muga izango du).
- Aseguru-hartzaileak LABORAL Kutxaren bezero izan behar du.
- Kontratatzen den poliza bakoitza TXARTELEZ ordaindu behar da.
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Zozketan parte hartzeko eskubidea ematen duen poliza ezerezten bada, saria eskuratzeko eskubidea galdu egingo da.
- Zozketa 2018-09-15ean egingo da.

4. Produktuen baldintzak

Europ Assistanceren FUN, TOTAL FUN, ESENCIAL, SCHENGEN, ENJOY, SEAYOU, LUGAGE, STOP, BYEBYE eta MISSYOU produktuak sartuko dira kanpainan, betiere LABORAL Kutxaren bidez kontratatzen badira eta TXARTELEZ ordaintzen badira.

- **Aseguratzailerak:** Europ Assistance España SA de Seguros y Reaseguros. IFK: A-28461994.
- **Sustatzailea:** Aseguru honen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da. B 75060988 zenbakiko IFK du eta banka-aseguruetako operadore lotetsia da. Aseguru eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusiaren Aseguru Bitartekarien Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Erantzukizun Zibila eta Finantza Ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Arriskuaren aseguratzailerak: Europ Assistance España SA de Seguros y Reaseguros. IFK: A-28461994.
- **Aplikazio-eremua:** Caja Laboral Popularren, Bankaseguruetako Operadore lotetsiaren, bankuko banaketa-sarearen bidez egiten diren kontratazioetan ezarriko da kanpaina. Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Bitartekarien Administrazio Erregistro Berezian erregistratuta dago, OV-0072 zenbakiarekin.

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu zerbitzuaren baldintzak hemen:

<https://www.laboralkutxa.com/eu>

